

Koiuntura di-da batean

2019ko martxoa

Aurkibidea

1. Kontsumitzailearen
konfiantza

2. Inflazioa

3. Kanpo merkataritza

4. Inguruneko hazkundera

5. PMI

6. Komisioaren aurreikuspenak

Eranskina

1. EAEko familien konfiantza finkatu zen 2018an.

Oraindik pentsatzen dute langabezia murriztuko dela etorkizunean.

2. Inflazioak %1,0ari eutsi dio aurtengo lehen hilekoan.

Gorantz joateko arriskua dago, petrolioaren oraingo ga-restitzearengatik.

3. EAetik atzerrira esportatutakoak beste maximo bat markatu du.

Salmenten guztizkoa 25.500 milioi euroetara hurbildu zen.

4. Euroguneak hazkunde erritmoa galgatu du.

Eremuko ekonomia gehienek moteltzeko zantzu garbiak erakutsi zituzten.

5. Bilakaera kontrajarriak manufakturetan eta zerbitzuetan.

Euroguneako PMI indize konposatuak hobera egin du, manufaktura jaitsi bada ere.

6. Europako Batzordeak beherantz zuzendu ditu hazkunde aurreikuspenak.

Ezkontasuna bereziki 2019ko urteko emaitzan fokatzenda.

EUSKO JAURLARITZA

OSASUN ETA EKONOMIA
SALA
Ekonomia eta Planifikazio Zuzendaritza




GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE HACIENDA
Y ECONOMIA
Dirección de Economía y Planificación

KONTSUMITZAILEEN KONFIANTZA


EAEko familien konfiantza finkatu zen 2018an

Familien konfiantza indizea




Laboral kutxak osatzen duen EAEko familien konfiantza indizea 3an kokatu zen 2018ko laugarren hiruilekoan. Datu horrek adierazlearen susperraldia erakusten du. Konfiantza indizearen batez besteko balioa 2018ko lau hiruilekoetan 1 izan zen, aurreko urteko emaitza berdinduz. Serieak egonkortasuna erakusten du aurreko urteetako ezkortasunetik urrundu diren balioetan. Datu globalaren oinarrian, ekonomia orokorraren norabideaz duten konfiantza eta lan merkatuaren etorkizuneko bilakaeraz duten baikortasuna daude. EAEko familien ustez, ekonomiaren egoera ona da, nahiz eta hazkunde erritmoa geldotuko dela aurreikusten duten. Beste aldetik, langabeziaren igurikimenak jasotzen dituen serieak hamabost hiruileko kateatu ditu langabezia tasaren jaitsiera iragarritz.


Ekonomia orokorra




Langabeziaren bilakaera



Familien ekonomia



Aurrezteko ahalmena



Iritziak biltzen dituen inkesta horren arabera, EAEko familiek beren ekonomiaren pertzepzioa hobetu dute, nahiz eta balio negatibotan jarraitzen duen. Orobat, familien aurrezteko ahalmenaz duten usteak ere hobera egin du eta, kasu horretan, eremu positiboan kokatu da. Familiek erosteko unearen balorazioa hobetu dute eta, informazio hori biltzen duen adierazlea oraindik negatiboa den arren, oraingoa une txarra dela etxerako gauzak erosteko pentsatzen duten familien portzentajea gutxitu da. Halaber, etxebizitza eta automobila erosteko asmoak bere horretan jarraitzen du. Laburbilduz, EAEko familiek kontsumoa berreskuratu dute eta dinamika hori erosketa handiak egiteko asmoetara, oraindik zuhurrak, igaro da.

EAEko familiek erakusten duten konfiantza ez da inguruneko gainontzeko ekonomietan berdin hautematen. Izan ere, Europako herrialde gehienetan, 2018ko laugarren hiruhilekoan kontsumitzaileen konfiantzak atzera egin zuen, urtean zehar bizi zen okerragotzeari gehitu zaiona. Ekonomia hazkundearen eta enpleguaren aurreikuspenak beheratzen dituzten albisteek eta ezegonkortasun geopolitikoak inguruneko kontsumitzaileen baikortasunari kaltea egin diote.

FAMILIEN KONFIANTZA INDIZEA

	2017	2018	2017			2018			
			II	III	IV	I	II	III	IV
EUSKADI	1	1	5	0,4	1	1	2	-0,5	3
Eurogunea	-6	-6	-7	-5	-4	-4	-5	-6	-7
Europar Batasuna 28	-6	-5	-6	-5	-4	-4	-5	-5	-6
Frantzia	-6	-10	-6	-5	-5	-6	-8	-10	-14
Alemania	-1	-1	-2	-0,2	1	0,7	-1	-2	-2
Erresuma Batua	-7	-7	-7	-8	-8	-7	-6	-6	-8
Italia	-16	-10	-19	-15	-12	-11	-11	-9	-10
Espainia	-3	-4	-3	-1	-3	-4	-3	-4	-6
Herbehereak	4	2	3	5	4	4	3	3	-2
Portugal	-5	-5	-6	-4	-3	-4	-4	-5	-5


Iturria: Laboral kutxa eta Europar Batzordea.

INFLAZIOA

Inflazioak %1,0ari eutsi dio aurtengo lehen hilekoan

KPI indize orokorra

Urte arteko aldakuntza tasa




EAEko inflazioak %1,0ko urte arteko igoera jaso zuen urtarrilean, elikagaien eta alkoholik gabeko prezioen bilakaerak izan zuen moteltzeari esker. Hori horrela izanda, azken datu horren ondorioz, KPIa hiru hilekoz jarraian egon da %2aren azpiko urte arteko tasak biltzen. Orobat, azpiko inflazioak KPI orokorraren azpian jarraitzen du, %0,7an kokatu baita.

KPIaren banaketa
Urte arteko aldakuntza tasak eta ekarpenak

	2017	2018	2019ko urtarrila	Ekarpena
Inflazio osoa (%100)	2,0	1,6	1,0	1,0
Azpiko inflazioa (%81,4)	1,1	0,9	0,7	0,6
- Elikagai landuak (%13,6)	0,0	0,9	0,1	0,0
- Industria ondasunak (%24,8)	0,3	-0,1	-0,1	0,0
- Zerbitzuak (%43,0)	1,7	1,5	1,3	0,6
Hondar inflazioa (%18,6)	6,5	4,6	2,4	0,4
- Landu gabeko janariak (%7,6)	3,7	2,9	0,8	0,1
- Energia (%11,0)	8,2	5,9	3,5	0,3


Azpiko inflazioa

Urte arteko aldakuntza tasak



Hondar inflazioa

Urte arteko aldakuntza tasak



Petrolio upelaren eguneko prezioa

Dolarrak



Aurreko epealdietan ez bezala, zeinetan petrolio gordinaren salneurria inflazioaren beheranzko joeraren erantzule nagusia baitzen, aurtengo hasieran moteltzea elikagaien eta alkoholik gabeko edarien taldearen bilakaerak eragin du. Hain zuzen ere, talde horrek pisu handiena dauka KPI indizea osatzeko erabiltzen den produktuen saskian eta abenduko %0,6tik urtarrileko %0,2ra apaldu zen, batez ere arrainaren eta itsaskien prezioen egonkortasunaren ondorioz, 2018ko hileko berean gorantz egin zuten bitartean. Prezioen moteltze horretan aisialdia eta kultura taldeak ere lagundu zuen, %-1,3an kokatu baitzuen bere urte arteko tasa, aurreko urtean baino puntu bat beherago, turismo paketeak gehiago merkatu zirelako. Hala eta guztiz ere, KPlaren beheranzko joera hori galgatu daiteke datorren hilekoan, azken aldian petrolioaren salneurriak izan duen garestitzeak bere horretan jarraituko balu, urtea hasi denetik upelaren prezioa 17 dolarretan garestitu delako.

KPlaren talde nagusiak

Urte arteko aldakuntza tasak. 2019ko urtarrila

	Euskadi	Espainia	Euro gunea
INDIZE OROKORRA	1,0	1,0	1,4
Janariak eta alkoholik gabeko edariak	0,2	0,9	1,3
Edari alkoholdunak eta tabakoa	1,5	1,3	3,7
Jantziak eta oinetakoak	0,7	0,8	1,2
Etxebizitza, ura, argindarra eta beste erregaiak	2,6	2,4	2,6
Altzariak, etxeko tresneria eta mantentzea	1,1	0,5	0,4
Medikuntza	-0,1	0,9	1,0
Garraioa	1,1	-0,2	0,8
Komunikazioak	2,7	2,6	-2,0
Aisia eta kultura	-1,3	-0,9	1,1
Hezkuntza	0,8	1,0	0,0
Jatetxeak eta hotelak	1,6	1,8	1,9
Bestelako ondasunak eta zerbitzuak	1,3	1,4	1,6


Iturria: INE eta Eurostat.

KANPO MERKATARITZA

EAEtik atzerrira esportatutakoak beste maximo bat markatu du

Atzerriarekiko esportazio guztien bilakaera


Milioi euro



Eustatek atzerrira bidalitako ondasunen merkataritzako datuak, 2018ko laugarren hiruhilekokoak, argitaratu ditu. Datu horiei esker, 2018ko salerosketen lehen zenbatespena lortzen da. Estatistika horren arabera, EAEko ekonomiak 25.500 milioi euro inguru balio zuten produktuak esportatu zituen 2018an, inoiz baino gehiago. Orobat, oraindik osasuntsua den EAEko ekonomiaren egoerak, batez ere beraren barne eskariarekin, inportazioak areagotu zituen, 20.289 milioi eurotik gorakoak izan baitziren, 2017an berreskuratutako goranzko joera finkatuz. Bi mugimendu horien ondorioz, kanpo saldo guztiak superabita ekarri zuen, ia 5.200 milioi euroakoa.


Inportazio guztiak

Milioi euro.



Merkataritza saldoa guztira

Milioi euro.




Iturria: Eustat. 2018ko datuak behin-behinekoak dira.

Esportazioen guztizkoa %6,8 hazi zen 2017an kontabilizatu zen kopuruaren aldean. Hazkunde horren zati bat energiako produktuen salmentatik etorri zen, gehikuntza are biziagoa lortu zutelako. Hain zuzen ere, erregai mineralen salmenta %16,3 handitu zen. Eraitza ona den arren, EAEko mendekotasun energetikoa esanguratsua da oraindik, zeren eta saldutako erregai mineralen balioa 2.560 milioi euroetara iritsi bazen, erosceta halako bi eta gehiago izan zen (5.729 milioi euro 2018an). Aurreko guztiaren ondorioz, merkataritza defizita 3.163 milioi euroetara hurbildu zen, 2017koa baino 350 milioi


Energiako esportazioak

Milioi euro




Energiaz bestelako esportazioak

Milioi euro



Energiaz bestelako esportazioen banaketa

2018. Ehunekoak




Energiaz bestelako esportazioak ere inoizko baliorik gorenetan kokatu ziren. Hain zuzen ere, energiaz bestelako salmentak %5,9 areagotu ziren 2018an eta 23.000 milioi euroetara hurbildu ziren. Europako bazkide nagusiek, hots, Alemaniak, Frantziak, Erresuma Batuek eta Italiak, bizitasun txikiagoa erakutsi zuten arren, Europar Batasuna berriro izan zen EAEko energiaz bestelako esportazioen helmuga garrantzitsuenaren. Izan ere, eremu horrek energiaz bestelako esportazio guztien %66,0 bereganatu zuen eta %7,2 hazi ziren. Ekipamendurako ondasunen salmentak, guztizkoaren %46,2 bildu baitzuten eta %2,8 hazi baitziren, eta metal arrunten eta beren manufakturenak, guztizkoaren %22,8 baitira eta %9,6 handitu baitziren, azaltzen dute hazkundera.

ELGETik kanpo, EAEko produktuek merkatu kuota galdu zuten berriro Txinan, non ez baitira finkatzen. Are gehiago, 2018an Asiako erraldoi horretan saldutakoa %12,3 gutxitu zen eta bakarrik produktu kimikoak eta garraio materialak lortu zituzten hazkunde positiboak.



BPG-AREN HAZKUNDEA

Euroguneak hazkunde erritmoa galgatu du

Eurogunea. BPGaren bilakaera
Urte arteko tasa


Eurostatek argitaratu dituen azken datuek adierazten dute Eurogunea %1,2 hazi zela 2018ko azken hiruhilekoan, urte arteko tasan. Beraz, urte osoko hazkundea %1,8 izan zen, 2017koa baino sei hamarren txikiagoa. Tasa hori 2014tik BPGak izan duen txikiena da. Bizitasun apalago hori eremuko ekonomia nagusietan nabaritu zen.

Hain zuzen ere, Alemania %1,4 hazi zen pasa den urtean, hots 2017an baino zortzi hamarren gutxiago. Munduko koiuntura ahulak, merkataritza alorreko tentsio globalak, esportazioak kaltetu baitzituen, eta gas kutsagarriak isurtzeko Europak ezarri dituen estandar berriek, automobilgintzari kalte egin baitzioten, ekonomia galgatu zuten. Frantzia, *txaleko horien* eragina bereziki kontsumoan, laugarren hiruhilekoan bere horretan geratu baitzen, eta inbertsioan, gutxitu baitzen, nabaritu zen. Horren ondorioz, BPGa %0,9ra moteldu zen.


Alemaniako BPGa
Urte arteko aldakuntza tasaFrantziako BPGa
Urte arteko aldakuntza tasa

Italiako BPGa

Urte arteko aldakuntza tasa

**Portugaleko BPGa**

Urte arteko aldakuntza tasa




Italia geldo ibili zen eta %0,1 baino ez zen hazi iazko azken hiruhilekoan. Italiako gobernuaren arabera, ahultze horrek *nazioarteko merkataritzaren moteltze biziaren eta Alemaniako industria produkzioaren eragina islatzen du*, baina 2018ko udan aurrekontuen inguruan gobernuaren eta europar agintarien artean sortu ziren desadostasunek herrialdearen ahultasuna areagotu zuten. Aurreko guztiaren ondorioz, 2018ko balantzean, BPGa %0,8 handitu zen, aurreko urtearen erdia besterik ez. Portugal ere gutxiago hazteko joera orokor horretan sartu zen eta 2018ko batez besteko hazkundea %2,1ean kokatu zen, 2017an lortutakoa baino zazpi hamarren gutxiago.


Azkenik, Espainia berriro izan zen herrialde dinamikoena eremuko bost ekonomia handien artean. Hain zuzen ere, ekonomia espainiarra %2,4 hazi zen iazko azken laurdenean eta egonkortasuneko joera garbia erakutsi zuen. INEren arabera, iazko urte osoan eskuratu zuen %2,5eko hazkundea eskari nazionalak ekarritako 2,9 puntuen ondorioa da. Ekarpene horrek 2017koa berdindu zuen. Aitzitik, kanpo eskariak lau hamarren kendu zizkion BPGaren gorakadari. Enpleguari dagokionez, Espainian %2,6ko urte arteko erritmoan hazi zen 2018ko laugarren hiruhilekoan, hots aurreko hiruhilekoan baino hamarren bat gehiago. Guztira, lanaldi osoko 463.000 lanpostu baliokide sortu zituen.

Espainiako BPGa

Urte arteko aldakuntza tasa

**Espainiako enplegua**


Urte arteko aldakuntza tasa



ENPRESARIEN KONFIANTZA


Bilakaera kontrajarriak manufacturetan eta zerbitzuetan

PMI konposatua. Eurogunea








Erosketa kudeatzaileen indizeak (PMI) hasieran manufacturen alorra jorratzen zuen eta oso lotura estua zeukan industriaren jarduerarekin. Gaur egun, beste adierazle bat argitaratzen da zerbitzuetarako eta biak konbinatuz ekonomiaren indize konposatua lortzen da. Bada, adierazle konposatu horrek moteltzeko joera garbia erakutsi zuen 2018an zehar, baina badirudi 2019ko otsailean, eskura dagoen azken datua baita, bilakaera hori galgatu dela. Beraren bi osagaietatik, manufacturek erakusten dute profil negatiboena eta hedatzea seinalatzen duen 50eko mailaren azpian dago jadanik. Hala ere, zerbitzuen adierazleak nolabaiteko susperraldia izan du 2019ko hastapenean.

Manufacturen PMI. Eurogunea




Zerbitzuen PMI. Eurogunea



PMI konposatua. Alemania**PMI konposatua. Frantzia****Manufakturen PMI. Alemania****Manufakturen PMI. Frantzia**

Euroguneko bi herrialde nagusien egoera oso bestelakoa da, zeren eta Alemaniako PMI konposatua 50eko mailaren gainetik dagoen bitartean, Frantziari dagokiona langa horren azpian kokatu baitzen urtarrilean, eta 49,9ra bakarrik igo zen otsailean.

Osagaiek ere bilakaera kontrajarriak izan zituzten bi herrialde horietan. Izan ere, manufakturen PMI alemaniarrek beheranzko joera eskaini du eta 47,6an kokatu du azken datua. Aitzitik, manufaktura frantziarrek 51,4an kokatzea lortu dute, egoera positiboago batean. Beste aldetik, ekonomia alemaniarrek oso sendotasun handia erakutsi du zerbitzuetako jardueretan, otsailean 55,1eko datua jasota, Frantziako 49,8aren aldean.

Zerbitzuen PMI. Alemania


Iturria: Markit

EUROPAKO BATZORDEAREN AURREIKUSPENAK

Europako Batzordeak beherantz zuzendu ditu hazkunde aurreikuspenak

Europar Batasuna 27. BPGa

Urte arteko aldakuntza tasa




Europako Batzordeak neguko txostenean argitaratu dituen aurreikuspenen arabera, EB-27ko ekonomiaren hazkundea %1,5ean kokatuko da 2019an eta zertxobait bizkortuko da 2020. urtean, %1,8ra iritsi arte. Tasa horiek behe-ranzko zuzenketa egiten diete aurreko txostenean argitaratu ziren aurreikus-penei. 2019rako igurikimenak ez dira oso positiboak, 2018ko hazkundea es-bero baino apalagoa izan zelako eta ekonomia jarduerari lagundu zioten alderdi iragankorrak desagertu direlako. 2020an, eskaintza murrizteak aurreikus-ten dira estatu kide batzuetan, kanpo eskari ahul batekin batera.

BPG. Europar Batzordearen aurreikuspen ekonomikoak


	Oraingoak			Aurreko txostenarekiko aldeak		
	2018	2019	2020	2018	2019	2020
Europar Batasuna 27	2,1	1,5	1,8	-0,1	-0,5	-0,1
Zona del euro	1,9	1,3	1,6	-0,2	-0,6	-0,1
Alemania	1,5	1,1	1,7	-0,2	-0,7	=
Belgika	1,4	1,3	1,2	-0,1	-0,2	-0,2
Espainia	2,5	2,1	1,9	-0,1	-0,1	-0,1
Frantzia	1,5	1,3	1,5	-0,2	-0,3	-0,1
Grezia	2,0	2,2	2,3	=	+0,2	+0,3
Irlanda	6,8	4,1	3,7	-1,0	-0,4	-0,1
Italia	1,0	0,2	0,8	-0,1	-1,0	-0,5
Herbehereak	2,5	1,7	1,7	-0,3	-0,7	-0,1
Portugal	2,1	1,7	1,7	-0,1	-0,1	=
Europar Batasuna 28	1,9	1,5	1,7	-0,2	-0,4	-0,1
Erresuma Batua	1,4	1,3	1,3	+0,1	+0,1	+0,1

Iturria: Europar Batzordea.


Alemaniako BPGa
Urte arteko aldakuntza tasa



Frantziako BPGa
Urte arteko aldakuntza tasa



Espainiako BPGa
Urte arteko aldakuntza tasa



Europako ekonomiaren gainean dabilen ziurgabetasun handiena merkataritza politikarena da. Alde batetik, kanpo arlotik, harreman aldeaniztunen etorkizuna, eta, beste aldetik, barne ikuspegitik, Europar Batasunak Erresuma Batuarekin izango dituen harreman ekonomikoak. Europar Batasunaren oraingo aurreikuspenek bi eremuen arteko merkataritza harremanak bere horretan jarraituko dutela hartzen dute kontuan.

Brexitaren emaitzak eragina izango du finantza merkatuetan eta inbertsioan. Akordiorik ez badago, eragina merkataritza harremanetan eta ekonomia jardueran are handiagoa izango da.

Kontsumo prezioen indize armonizatua. Europar Batzordearen aurreikuspen ekonomikoak

	Oraingoak			Aurreko txostenarekiko aldeak	
	2018	2019	2020	2019	2020
Europar Batasuna 27	1,8	1,6	1,7	-0,3	=
Zona del euro	1,7	1,4	1,5	-0,4	-0,1
Alemania	1,9	1,4	1,5	-0,5	-0,1
Belgika	2,3	1,9	1,7	-0,2	+0,1
Espainia	1,7	1,2	1,5	-0,5	=
Frantzia	2,1	1,4	1,7	-0,3	+0,1
Grezia	0,8	0,7	1,3	-0,4	+0,3
Irlanda	0,7	0,9	1,4	-0,3	=
Italia	1,2	1,0	1,3	-0,5	-0,1
Herbehereak	1,6	2,4	1,7	-0,1	=
Portugal	1,2	1,3	1,6	-0,3	=
Europar Batasuna 28	1,9	1,6	1,8	-0,4	=
Erresuma Batua	2,5	1,8	2,0	-0,2	+0,1

EAE-KO EKONOMIA

Taula makroekonomikoa

Urte arteko aldakuntza tasak

	2017	2018	2017		2018		
			IV	I	II	III	IV
BPG	2,9	2,8	3,0	3,1	2,9	2,6	2,4
Familien kontsumoa	3,0	—	2,9	2,9	2,6	2,3	—
Administrazioaren kontsumoa	2,4	—	2,7	2,6	2,0	1,2	—
Kapital eraketa gordina	3,3	—	3,7	3,7	4,8	4,0	—
Barne eskaria	3,0	—	3,0	3,0	3,0	2,5	—
Esportazioak	4,7	—	6,8	6,7	2,9	2,2	—
Inportazioak	4,8	—	6,9	6,4	3,1	2,1	—
Lehen arloa	6,8	—	-2,7	-3,0	0,8	-4,6	—
Industria	3,1	—	3,5	3,7	3,1	1,9	—
Eraikuntza	3,8	—	4,0	2,7	4,1	4,8	—
Zerbitzuak	2,7	—	2,7	3,1	2,8	2,7	—
Balio erantsi gordina	2,9	—	2,9	3,1	2,9	2,6	—
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	2,8	—	3,3	3,1	2,8	2,6	—

Iturria: Eustat.

Aurreikuspenak. 2018ko abendua

Urte arteko aldakuntza tasak

	2018		2019			2018	2019
	IV	I	II	III	IV		
BPG	2,6	2,4	2,3	2,2	2,2	2,8	2,3
Barneko azken kontsumoa	2,2	2,1	2,1	2,1	2,0	2,4	2,1
Familien kontsumoa	2,3	2,2	2,2	2,1	2,0	2,5	2,1
Administrazioaren kontsumoa	1,6	1,9	1,8	1,9	2,0	1,9	1,9
Kapital eraketa gordina	3,7	3,3	2,9	2,9	2,7	4,0	3,0
Barne eskariaren ekarpena	2,6	2,5	2,4	2,4	2,3	2,8	2,4
Kanpo eskariaren ekarpena	0,0	-0,1	-0,1	-0,2	-0,1	0,0	-0,1
Lehen arloa	-7,4	-7,0	-3,9	-8,0	8,3	-3,6	-2,6
Industria	2,3	2,5	2,3	2,1	2,0	2,8	2,2
Eraikuntza	3,2	2,9	2,1	1,9	1,7	3,7	2,1
Zerbitzuak	2,7	2,6	2,5	2,5	2,3	2,8	2,4
Balio erantsi gordina	2,6	2,5	2,3	2,2	2,2	2,8	2,3
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	2,5	2,2	2,2	2,0	2,0	2,8	2,1
Enplegua	1,8	1,6	1,4	1,4	1,2	2,0	1,4

Iturria: Ogasun eta Ekonomia Saila: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

EAEko ekonomiarako aurreikuspenak

Urte arteko aldakuntza tasak

	BPG			BPG	
	2019	2020		2019	2020
BBVA	2,7	2,3	Laboral Kutxa	2,4	—
Funcas	2,7	—	Hispalink (BEGren aldakuntza)	2,1	2,0
Confebask	2,5	—	CEPREDE	1,8	1,8

Iturria: CEPREDE (2019ko otsaila), BBVA (2019ko otsaila), Confebask (2018ko abendua), Laboral Kutxa (2018ko abendua), Funcas (2018ko azaroa) eta Hispalink (2018ko abendua).

ESPAINIAKO EKONOMIA

Taula makroekonomikoa

Urte arteko aldakuntza tasak

	2017	2018	2017		2018		
			IV	I	II	III	IV
BPG	3,0	2,5	3,1	2,8	2,5	2,4	2,4
Kontsumo pribatua	2,5	2,4	2,7	3,1	2,2	2,1	2,2
Kontsumo publikoa	1,9	2,3	2,6	2,2	1,9	2,1	3,0
Kapital finkoaren eraketa gordina	4,8	5,2	5,2	3,8	7,0	5,5	4,6
- Aktibo finko materialak	5,1	5,7	5,6	3,9	7,8	6,1	4,8
- Eraikuntzan	4,6	5,5	4,8	5,6	6,3	5,5	4,8
- Ekipamendu ondasunetan	6,0	6,0	6,7	1,6	10,0	7,0	4,8
- Jabetza intelektualaren produktua	3,5	2,6	3,1	2,9	2,5	1,8	3,3
Nazio eskaria (ekarpena)	2,9	2,9	3,3	3,1	3,1	2,8	2,7
Esportazioak	5,2	2,2	4,2	3,3	2,3	1,3	1,8
Inportazioak	5,6	3,6	5,4	4,4	4,6	2,5	3,1

Iturria: INE.

Espainiako ekonomiarako hainbat aurreikuspen

Urte arteko aldakuntza tasak

	BPG			BPG	
	2018	2019		2018	2019
AFI	2,6	2,3	IEE	2,6	2,1
Axesor	2,5	2,2	Intermoney	2,5	2,2
BBVA	2,6	2,4	Repsol	2,5	2,1
Bankia	2,5	2,2	Santander	2,5	2,1
CaixaBank	2,5	2,1	Solchaga Recio & asociados	2,5	2,0
Espainiako Merkataritza Ganbera	2,5	2,2	BATEZ BESTE	2,5	2,2
Cemex	2,5	2,3	Gobernua (2019-01)	2,6	2,2
CEEM-URJC	2,6	2,1	Espainiako Bankua (2018-12)	2,5	2,2
CEPREDE-UAM	2,6	2,2	Europar Batzordea (2019-02)	2,5	2,1
CEOE	2,5	2,2	NDF (2019-01)	2,5	2,2
FUNCAS	2,5	2,1	ELGE (2018-11)	2,6	2,2
ICAE-UCM	2,5	2,2	Consensus Forecast (2019-02)	2,5	2,2

Iturria: FUNCAS, Ekonomia eta Ogasun Ministerioa, CEPREDE, ELGE, NDF, Europar Batzordea, The Economist eta Consensus Forecast. AFI: Analistas Financieros Internacionales; ICAE-UCM: Instituto Complutense de Análisis Económicos-Madrileko Unibertsitate Konplutentse; ICO: Instituto de Crédito Oficial; IEE: Instituto de Estudios Económicos; IFL-UC3M: Flores de Lemus Institutua-Carlos III Unibertsitatea Madril; NDF: Nazioarteko Diru Funtza; ELGE: Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundea.

NAZIOARTEKO EKONOMIA

Ekonomia hazkundera

Urte arteko aldakuntza tasak

	2017	2018	2017		2018		
			IV	I	II	III	IV
AEB	2,2	2,9	2,5	2,6	2,9	3,0	3,1
Txina	6,9	6,6	6,8	6,8	6,7	6,5	6,4
Japonia	1,7	0,7	2,4	1,3	1,4	0,1	0,0
Kanada	3,0	—	2,9	2,3	1,9	2,1	—
Europar Batasuna	2,4	1,9	2,6	2,3	2,2	1,8	1,5
Eurogunea	2,4	1,8	2,7	2,4	2,2	1,6	1,2
Alemania	2,2	1,4	2,8	2,1	2,0	1,2	0,6
Frantzia	2,2	1,5	2,8	2,2	1,7	1,3	0,9
Erresuma Batua	1,8	1,4	1,4	1,3	1,4	1,6	1,3
Italia	1,6	0,8	1,6	1,4	1,2	0,6	0,1
Herbehereak	2,9	2,5	3,1	3,0	2,9	2,4	1,8

Iturria: Eurostat, BEA eta ELGE.

Consensus Forecast. 2019ko otsaila

Urte arteko aldakuntza tasa

	BPG		KPI		LANGABEZIA TASA	
	2019	2020	2019	2020	2019	2020
AEB	2,5	1,9	1,9	2,2	3,7	3,7
Japonia	0,9	0,4	0,8	1,2	2,4	2,4
Kanada	1,7	1,8	1,8	2,0	5,8	5,8
Europar Batasuna	1,5	1,6	1,6	1,7	—	—
Eurogunea	1,3	1,4	1,4	1,5	7,8	7,6
Alemania	1,2	1,5	1,7	1,7	5,0	4,9
Frantzia	1,3	1,4	1,3	1,5	8,7	8,5
Erresuma Batua	1,4	1,5	2,0	2,1	4,2	4,3
Italia	0,3	0,7	0,9	1,3	10,4	10,3
Espainia	2,2	1,9	1,3	1,5	—	—
Herbehereak	1,7	1,6	2,2	1,8	—	—

Iturria: Consensus Forecast.